

Zer den EAH - AHE

<http://www.eah-ah.org>

Herritarrei zabalduko kulturagunea da EAH-AHE. Euskal Herriko ondare dokumentalarekiko atxikimendua herritarrei helaraztea du helburu, bai eta aisialdirako, ikerketarako nahiz garapen kulturalerako erabiltzeko aukera ematea ere.

Helburu hori abiapuntu hartuta, balio historiko handiko dokumentuen gordailua da EAH-AHE, baina, aldi berean, dokumentazio horren erabilera (edo erabilerak) interes sozialeko jardueraz pizgarri eta sortzaile bihurtzeko diseinatu da.

Eusko Jaurlaritzaren garapen dokumental eta administratiboaren ondorio da EAH-AHEren sorrera, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sustatu du.

Funtzioak

Hiru funtzio mota nagusi ditu EAH-AHEK:

- 1.- Euskal Herriko ondare dokumentalaren gordailua izatea.
- 2.- Herritarrei zuzendutako kultura-ekintza osatzea.
- 3.- Euskadiko Artxibo Sistema kudeatzea.

Erabiltzaileen eskubideak eta konpromisoak

EAH-AHE herritar guztiei zuzentzen zaien zerbitzu publikoa da, eta, horregatik, beharrezkoa da erabiltzaileen eskubide eta konpromisoak jasoko dituen esparru orokor bat arautzea, zerbitzuaren kalitateari eta iraunkortasunari eusteko eta inolako bereizkeriarik gabe bertara jotzen dutenek instalazio eta programak ahalik eta erosoan erabili ahal izateko.

Erabiltzaileen eskubideak

- Artxibora askatasun osoz sartzea eta bertako instalazioak erabiltzea.
- Bertan gordetzen diren funts dokumentalak kontsultatzea, indarrean den legediak ezarritako mugen barnean.
- Artxiboaren funts eta zerbitzuei buruzko aholku tekniko eta profesionalak jasotzea.
- Artxiboko webgunean eskaintzen ez diren baina bertakoak diren dokumentuen kopia digitalak, egiaztatutako nahiz zerbitzu-gutun honetan aurreikusten direnak, lortzea.
- EAH-AHEren zerbitzuak eroso, sarbide egokia izanez eta segurtasunez erabiltzea.
- Artxiboak eskaintzen dituen zerbitzuei buruz aholkuak emateko, kekak adierazteko edo iradokizunak egiteko aurreikusitako bideak erabiltzea.

Erabiltzailearen konpromisoak

- Instalazioak zuzen erabiltzea.
- Errespetuzko giroa sortzen eta arretaz jokatzeko laguntzea, artxiboko gainerako erabiltzaileekin eta langileekin ari garenean.
- Dokumentazioa kontu eta arreta handiz kontsultatzea, ondo eta bere osotasunean gordetzen dela bermatzeko.
- Erabiltzaileentzako arreta-zerbitzuaren arduradunekin elkarlanean aritzea, eta, dokumentazioaren erabilera-arauei eta tratamenduari dagokienez, haiek emandako jarraibideak errespetatzea.

Indarrean den legedia

- 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.
<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/es/bopv2/datos/1990/08/9002387a.pdf>
- 232/2000 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituena.
http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20001211&a=200005495
- 174/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.
http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?C&F=20030822&A=200304751

Informazio erabilgarria

Kokapena

María Díaz Haroko kalea, 3 - 48013 Bilbo

Ordutegia

Ordutegi orokorra (urriaren 1etik maiatzaren 31ra): 9:00etatik 16:00etara
Udako ordutegi berezia (ekainaren 1etik irailaren 30era): 9:00etatik 14:00etara

*iciae. berre fundamentuzie dauquedo
baño, ita, icaxatuta lanyacm na
30.
uian yauza aubm. Azcoitiaie exten
Antoni. ette. Oxi nie etnanarin, Gu
ae, berre echotic exten baye imponi
auza azoteñ. Neze echian dauca
omplua. Traie Guziarequin. Citu
zcoitiaie exten. bana Oaxeyaticu*

ARTXIBO

EUSKADIKO
ARTXIBO
HISTORIKOA

María Díaz de Haro, 3 - 48013 Bilbo
Telef.: 944032787
www.eah-ah.org

*auza azoteñ. Neze echian dauca
omplua. Traie Guziarequin. Citu
zcoitiaie exten. bana Oaxeyaticu*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

1.- Euskal Herriko ondare dokumentalaren gordailua

EAH-AHEk, gordailu den aldetik, batik bat 1936az geroztik Eusko Jaurilaritzak eta honen mendeko erakundeek ekotzi eta bildutako dokumentazio historikoa gorde eta eskaintzen du. Askotarikoak dira dokumentuak, beraz, jatorriz, eta funts dokumentalen tamaina, jatorria eta osaketa zabalitzen ari da aldian-aldian; horregatik, artxiboaren webguneak sarrera berrien eta gordetzen diren funtsen osaketaren berri ematen du. Horrez gain, EAH-AHEk erakunde, familia eta partikularren dokumentazioa ere gordetzen du. Eta dokumentazio horren zatirik handiena deskribatuta, antolatuta eta digitalizatuta dago, eta gure web ataritik eskura daiteke.

Publiko espezializatu batentzat soilik diseinatutako kontserbazio pasiboa eta sarbidea helburu anakronikoak dira, eta hori zuzentzen eta hobetzen ahalegintzen ari da EAH-AHE. Ildo horretatik, gure konpromisoa dokumentaziorako sarbidea gizar-tean eta herritarren artean oinarri zabala izango duen erabilera kultural bihurtzea da. Horretarako, instalazio egokiak ditugu, eta kultura-talde eta partikularren esku jarri nahi izan ditugu. Gainera, aldi baterako erakusketak ere antolatzen ditugu, eta azterketa-saioak, hitzaldiak eta lantegiak ere proposatu ohi ditugu.

Euskadiko Artxibo Sistemaren koordinatzaile garen aldetik, EAH-AHEk babes ekonomikoa eta teknikoa eskaintzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo publiko eta pribatuaren sareari, eta berorien edukia ere zabalitzen du, web atariaren bidez, <http://www.eah-ahe.org>

2.- Ekintza kulturala herritarren zerbitzura

Dokumentuen kontsulta

• Baldintzak

- Edonor sar daiteke EAH-AHEn
- Soilik kontsulta-gelan (2. solairuan) sartu nahi dutenei eskatuko zaie NANaren bidez identifikatzeko.
- Edonork erabil ditzake instalazioak, kontsulta-gelako liburutegi osagarria eta, hala dagokionean, baliabide pedagogiko edo teknikoak, eta zerbitzu-gutun honen seigarren atalean jasotako arauak arautzen dute soilik.

• Kontsulta-moduak

- EAH-AHEk kontsultak egiteko bi modu eskaintzen dizkie herritarrei:
- Artxiboaren webgunearen bitartez: <http://www.eah-ahe.org>; webgune horretan, artxiboan gordetako funtsen inbentarioak nahiz berorien kopia digitala kontsulta daitezke.
- Aurrez aurre, erabiltzaileen gelan (bigarren solairuan). Ez dira erabiltzaileen esku jarriko digitalizatuta dauden dokumentuen jatorrizkoak.

Dokumentazioa banaka nahiz lan-taldeetan kontsultatzeko aukera ematen dute instalazioek. Kontsulta taldeka egin nahi bada, baimena eskatu beharko da artxiboko idazkaritzan, taldean lan egiteko toki nahikoa gorde ahal izateko. Abantaila emango zaie hedapen kultural eta pedagogikoarekin lotutako talde-jarduerari.

Aholkularitza

EAH-AHEk aholkularitza-zerbitzua eskainiko die erabiltzaileei beren kontsultak eta ikerketak egiteko orduan, eta artxiboko helbide elektronikoaren bidez -mailto:info@eah-ahe.org- edo instalazioetan bertan eska daiteke aholkularitza. Zerbitzu honen helburua artxiboak nahiz Euskadiko Artxibo Sistemak gordetzen dituzten funts dokumental ugarien kontsulta gidatzea da, dokumentu horiek errazago eskuratu ahal izateko.

Kopiagintza

EAH-AHEk kopia digitalak egiteko zerbitzu bat du, eta erabiltzaileek kopia digitalak eskatzeko aukera dute zerbitzu horretan, kopiarik ez duten eta webgunean jasota ez dauden dokumentuen kasuan; dokumentu horiek beren erabilera pertsonalerako izango dira.

Prezioak artxiboak argitaratutako tarifetan jasota daude.

Liburutegi osagarria

Erabiltzaileen gelak edonork erabiltzeko liburutegi osagarri bat du, eta artxibistikan, historia orokorrean eta Euskadiko historian nahiz zientzia osagarrietan espezializatuta dago.

Sinestamenduak

EAH-AHEk dokumentu berezien kopia egiaztatuak egingo ditu, tarifa orokorrean aurreikusitako kostu eta tasekin. Sinestamenduak dokumentuaren kopia digitalarekin batera emango dira.

Kultura-ekintza

EAH-AHEk ondare dokumentalaren eta artxiboaren zaintzarekin, hedapenarekin eta balioztatzearekin lotutako kultura- eta hezkuntza-hedapenerako programak antolatuzko instalazio egokiak ditu (ekitaldi-aretoa, erakusketa-gela, taldean lan egiteko gelak). Instalazio horiek arlo horretan lan egiten duten beste instituzio edo erakunde batzuen esku utz daitezke, lehenago aipatutako helburua badute, betiere.

3.- Euskadiko Artxibo Sistemaren kudeaketa

Euskadiko Artxibo Zerbitzuen web ataria

EAH-AHEk lehenago aipatu dugun Euskadiko artxiboaren web ataria kudeatzen du. Web atari hori bi webgune hauen batura da:

- Artxibo Sistemaren beraren webgunea. Webgune horrek EAH-AHEren eta Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo-zerbitzuen sarearen jarduerari buruzko informazio teknikoa eskaintzen du: <http://www.snae.org>
- Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo publiko eta pribatuaren dokumentuak kontsultatzeko webgunea. <http://www.dokuklik.org>

Beste baliabide batzuez gain, 500 artxibo ingururen inbentarioak hustu dira atarian (650.000 erreferentzia dokumental), eta baita XIII. mendetik XX. mendera bitarteko dokumentuen 3,2 milioi irudi digital eta Euskal Herriko 1900. urtera bitarteko sakramentuen erregistro guztien aurkibidea ere (5,5 milioi erregistro pertsonal).

Euskadiko Artxibo Sistemari zuzendutako zerbitzuak

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren artxibo-politikaren arduradun den heinean, EAH-AHEk Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Zerbitzuetan aholkularitza teknikoa, laguntza ekonomikoa eta koordinazioa eskaintzeko zenbait programa batzuk diseinatzeko dituzten erroto.

2013. urtean, honako programa hauek izan ziren indarrean:

- Euskal Herriko artxiboaren eta ondare dokumentalaren webgune kolektiboa diseinatzeko, garatzeko eta kudeatzeko programa.
- Toki-administrazioako artxiboak antolatzen, mantentzen eta hedatzen laguntzeko programa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo pribatuak antolatzen eta hedatzen laguntzeko programa.
- Artxibo historikoetako funtsak digitalizatzeko eta Euskadiko Artxibo Sistemara husteko programa.
- Dokumentazioa balioesteko eta hautatzeko batzordea.

Halaber, EAH-AHEk artxibo pribatu nahiz publikoetako funtsak bere instalazioetan gordetzeko aukera eskaintzen du.